

Donostiar hiritarrek bikain bat ematen diote Donostiako bizi kalitateari.

2008ko Hiritarren Pertzepzioari buruzko inkestan bidegorrien sarea, garraio publikoa eta kultur etxeak dira zerbitzu preziatuenak.

Donostiar hiritarrek bikain bat ematen diote euren hiriko bizi kalitateari, Donostia hiri segurua dela uste dute eta hiriak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitateari batezbesteko nota “oso ondo” da.

Horrela jasotzen du, asteazkena, urriak 29, Plan Estrategikoko Batzorde Delegatuaren bileran ezagutzera eman zen Hiritarren Pertzepzioari buruzko inkestak.

Aitzitik, balio txarrena jasotzen duten aspektuen artean trafikoa, etxebizitza, aireportura sarbidea eta enplegura sarbidea daude.

Inkesta honen bidez zenbatetsitako aspektuak lau izan dira: **Bizi-kalitatea, Zerbitzuen Kalitatea, Hiriaren hainbat aspekturen Garapena eta Hiriko proiektu estrategikoen Garrantzia.**

Egindako galdera bakoitzean hiritarrei “oso pozik” “pozik” “pitin bat pozik” edo “batere pozik” baloratzeko eskatu zitzaion. Balorazio zinta hauetako bakoitzari puntuazio bat ezarri zitzaion eta bertatik batezbesteko nota orokorra lortuaz.

Bizi-kalitatea.

Azpimarratu behar da, lau hiritarretatik hiruk (hau da, %74k) , Donostiako bizi-kalitatearekin “BETI” gustura sentitzen direla baieztatu dutela. **Hiriari ematen dioten batezbesteko nota BIKAIN da, 8,96 punturekin.**


Hiritarren segurtasuna da bizi kalitatearekin estuki lotuta dijoan alde azpimagarrienetako bat. Kasu honetan, euren hiria segurua dela uste du donostiar hiritarren gehiengoak: Donostian “**beti**” **seguru** sentitzen direla baitiote galdeketa egindako pertsonen %73k.

Se hallan satisfechos con la calidad de vida de San Sebastián

Valoración Media
(de 0 a 10)



8,96




Escala de valoración utilizada en el cuestionario:
Siempre – A veces – Rara vez – Nunca

Zerbitzuen kalitatea.

Hiriak eskaintzen dituen zerbitzuak baloratzeko garaian, nota altuena **Liburutegi eta kultur etxeek** lortzen dute (7,12), ondoren ostalaritza eta jatetxeak daude (6,76), etxetik internetera sarbidea (6,72) eta kultur ekipamenduen kalitatea (6,67). Okerren baloratutako zerbitzuak, **publikoak internetera duen sarbidea** (6,12), kirol ekipamenduak (6,07), hiriko espazio berdeak (6,04) eta aisialdi eskaintza (5,54) dira.

Azpimarratu behar dugu, baloratutako zerbitzu bakar batek ere ez duela GUTXIEGI bat jaso, batezbesteko balorazio indizea 6,38 puntukoa izanik.

LOS SERVICIOS DE LA CIUDAD valoración media (0 a 10)



Escala de valoración utilizada en el cuestionario:
Muy Satisfecho – Satisfecho – Descontento – Totalmente Descontento

Hiriko aspektu ezberdinen garapena.

Inkestaturen arabera, hirian garapen onena izan duten aspektuak **bidegorri sarea** (9,07), interneten erabilera zabala (8,82), hiriko garraio publikoak duen eskaintza (8,16) eta espazio publikoak (7,99) dira. Garapenari dagokionez, puntu beltzenak **aireportuekin konexioak** (4,62), lanbidera sarbidea (3,04), aparkaleku eskaintza (2,87), trafikoa (2,37) eta etxebizitzara sarbidea (1,84) dira.

EVOLUCIÓN DIVERSOS ASPECTOS DE LA CIUDAD valoración media (0 a 10)



Escala de valoración utilizada en el cuestionario:
Ha mejorado – Sigue igual – Ha empeorado

Hiriko proiektu estrategikoen garrantzia.

Hiritarrek hiriko proiektu estrategiko zehatz batzuei ematen dieten garrantzia jaso da.

Autobus geltokia (8,55), hiri arteko autobus sarearen hobekuntza eta txartel bakarra (8,26), etxebizitza (8,17) eta hiriko autobusen hobekuntza (8,14) izan dira inkestatuen interes gehiena piztu duten gaiak.

Beste aldean, hirian dinamismoa sortzen duten eta bisitarientzat erakargarriak diren lau proiektu daude, donostiarrei zuzenki hunkitzen ez dieten proiektuak dira: Europako Hiri Kultural izatea lortzea (5,46), Tabakalera KGNGa, Monpas Pasabidea (4,07) eta 2013an hiriaren birsorkuntzaren bigarren mendeurrenaren ospakizuna (4,03).

IMPORTANCIA DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS PARA LA CIUDAD valoración media (0 a 10)



Escala de valoración utilizada en el cuestionario:
Muy importante – Importante – Nada importante

Urban Audit.

Donostiako Plan Estrategikoren Hiritarren Pertzepzioari Buruzko Inkesta, Urban Audit, Europar Batasuneko hirietako behategiaren metodologia eta galdeketara erantsi da. Bere proiektuen artean, Batasuneko hirietako datuen sistematizazioa dago, hiritarrek beren bizi-kalitateari buruz duten pertzepzioa baloratzeko.

Inkesta hau 27 herrialdeen Europako 75 hiritan eta Kroazia eta Turkian egin dute telefonoz eta EBaren barruan egiten diren Flash/Eurobarometroaren inkesten esparruan kokatzen da

Helburua Europako hiri ezberdinen emaitzak konparatzea da, modu honetan, azterketa honetako beste hiriburu eta udalekin alderatuta, donostiarrek duten balorazioaz posizioa hartu ahal izateko.

Gogoeta ariketa honetan, Donostia 29. postuan kokatzen da, aztertutako 76 hiri hauen artean (75 Urban Audit hiri + Donostia). Groningen (Holanda), Aalborg (Danimarka), Newcastle (Erresuma Batua), Munich (Alemania) eta Oulu (Finlandia) orokorrean balorazio altuena duten hiriak.

Kontrako aldean Estambul (Turkia), Sofia (Bulgaria), Palermo (Italia), Atenas (Grezia) eta Napoli (Italia) dira balorazio txarrean duten hiriak.